

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AÑANAKO KUADRILLA

#### Praktiketako funtzionario izendatzea

Urtarrilaren 27an, Añanako Kuadrillako ediktu-oholean argitaratu eta onartu da praktiketako behin-behineko izendapena, 20/2021 Legearen 2.1 artikulua, ondoren aipatzen den lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua amaitu ondoren.

Hori guztia, bat etorritz 2022ko abenduaren 26ko ALHAOn (148. zk.) argitaratutako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri orokorrekin eta haien akats-zuzenketekin (2023ko martxoaren 29ko ALHAO, 55. zk., 2023ko maiatzaren 12koa eta 51. zk., 2024ko maiatzaren 8koa), egiturazko lanpostu hutsak lehiaketa-oposizio bidez betetzeko.

Hori guztia 2023ko maiatzaren 26ko BOEn (125. zk.) argitaratutako deialdiaren laburpenarekin bat etorritz.

Lanpostuak betetzeko deitutako oposizio-lehiaketa epaitu duen epaimahai kalifikatzaileak proposatutako behin betiko sailkapenak eta izangaiek aurkeztutako agiriak ikusita, honako hau

Presidentziaren 17/2025 Ebazpenaren arabera, praktikaldiko funtzionario izendatu da probaldian, eta Añanako Kuadrillako lanpostura atxiki da, jarraian deskribatzen den moduan:

Ana García Valdeolivas andrea berdintasun-teknikariaren lanpostuan, administrazio bereziko eskalakoa, zerbitzu berezien azpieskalakoa, zeregin berezien motakoa, eta lanpostu horri atxikitzea, A2 taldea.

Izendapena behin-behinekoa da, praktikaldia aurreikusten den heinean, 15. oinarrian ezarritakoaren arabera.

Izendapen honek ebazpen honen egunetik aurrera izango ditu ondorio administratiboak.

Lanpostuaren atxikipena behin-behinekoa izango da praktikaldia amaitu arte, deialdiaren 15. oinarriarekin bat etorritz.

Denbora horretan, praktiketako funtzionario izendatutakoek normaltasunez beteko dute beren lana, eta dagozkien ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute.

Praktikaldia amaitu eta, hala badagokio, gainditu ondoren, karrerako funtzionario izendatuko dute, eta izendapena ALHAOn eta legez ezarritako beste edozeinetan argitaratuko da.

Funtzionario izendatutako izangaiek hilabeteko epea izango dute, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, legez ezarritako zin edo promesa egiteko eta lanpostuaz jabetzeko.

Publikotasunaren ondorioetarako, ebazpenen zerrenda osorik argitaratu da erakundearen ediktu-taulan, eta interesdunari jakinarazi zaio.

Ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtsua aurkez daiteke hilabeteko epean. Epe hori igarota, administrazioarekiko auzi-errekurtsua baino ezin izango da jarri, hargatik eragotzi gabe berrikusteko errekurtsu berezia jartzea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123., 124., 125. eta 126. artikulua).

Ribabellosa, 2025eko urtarrilaren 27a

*Lehendakaria*

**RUBÉNTORREMOCHA GALÁN**